- ✔ **Notificar la venta a la DGT** por parte de quien vende a través de la Sede Electrónica de la DGT o presencialmente en una Jefatura de Tráfico con cita previa (solo cuesta 8,67€). Aunque la ley no obliga expresamente a hacerlo, es muy recomendable porque protege a la persona propietaria

ante posibles multas o responsabilidades que puedan surgir posteriormente.

- ✔ **Realizar el cambio de titularidad en la DGT** y el pago del impuesto por parte del comprador en Hacienda Foral. Solo cuando la DGT registre el cambio de titular, el vehículo figurará oficialmente a nombre de quien compra, completando así el proceso de compraventa. Hasta ese momento, es aconsejable conservar una copia del contrato y del justificante de notificación de venta.

# INAUTERIAK | CARNAVALES



# KULTURA CULTURA

Historiaz, lasterketaz, irriz eta tradizioz beteriko hogeita hamar urte. Atarrabiako karririk kolorez, musikaz eta zirrazz beterik. Maiatzaren 9an, Kilikien Konpartsak bere 30 urtemuga ospatuko du. Jai giroko egun zoragarria izanen da, hainbat belaunaldi bilduko baitira herrian gehien maite den tradizioetako baten inguruan.

Ospakizuna, gainera, egun handia iritsi baino lehen ere hasiko da. Izan ere, **apirilaren 23tik maiatzaren 2ra**, kilikiei buruzko **erakusketa** bat jarriko da ikusgai Atarrabiako Kultur Etxean, 30 urteko ibilbidean izaniko irudi gogoangarriak ere erakusteko. Ibilbide gozagarria begietarako, bai eta hunkigarria ere, konpartsaren ariman iltzaturik gelditu diren une zoragarriak, pasadizoak, pertsonaiak eta oroitzapenak gogora ekartzeko. Egun horietan, gainera, haurrek **haur marrazki lehiaketan** parte hartzeko aukera izanen dute, belaunaldi berriek gure tradizioa kolorez, etorkizunaz eta bizitzaz betetzen jarraitzeko.



## Egun handia, maiatzaren 9an

Maiatzaren 9an sekulako kiliki bilkura egingen da, **kilikada** bat, Nafarroa osoko 76 kiliki konpartsa elkartuko baitira. Inoiz ez bezalako irudi horren bidez, herri kultura, batasuna eta jai sentimendua ardatz izanen dira gure karriketari; hitz batez, benetako ikuskizuna.

Arratsaldean, giroak ez du etenik izanen, txokolate jana izanen baita denontzat, bai eta jolasak eta familian gozatzeko moduko sorpresak ere.

Eta eguna ezin hobeki bukatzeko, **zementxo gurpildunak** ibiliko dira, gure herria berriz ere emozioz blaitzeko, eta simbolismoz, oroitzapenez eta esker onez beteriko **azken agur** bat ere egingen da.

Hogeita hamar urte geroago, kilikiak oraindik ere badabiltza gure kaleetan barna lehen egunean bezainbesteko indarrez, tradizioari eutsita, konpartsa Atarrabiako nortasuna, harrotasuna eta bihotza baita.

Zuen zain egonen gara historiaz beteriko hiru hamarkada horiek elkarrekin ospatzeko.

**Kilikiak non, festa han!**

## 30 urtez lasterketetan “zinpi-zanpa” maitasunez

Kilikien Konpartsak bere 30. urtemuga ospatuko du maiatzaren 9an

La Comparsa de Kilikis celebrará su 30 aniversario con una jornada festiva el 9 de mayo

## 30 años de carreras repartiendo “palos” y cariño



Treinta años de historia, de carreras, de risas y de tradición. Treinta años llenando las calles de color, música y emoción. El 9 de mayo, la Comparsa de Kilikis celebrará su 30º aniversario con una jornada festiva inolvidable que reunirá a generaciones enteras en torno a una de las tradiciones más queridas del pueblo. La celebración comenzará incluso antes del gran día.

**Del 23 de abril al 2 de mayo**, la Casa de Cultura acogerá una **exposición** especial dedicada a los kilikis y a las imágenes que han marcado estos 30 años de historia. Un recorrido visual y emocional por momentos inolvidables, anécdotas, personajes y recuerdos que forman parte del alma de la comparsa.

Durante esos días, además, los más pequeños podrán participar entregando sus dibujos para el **concurso de dibujo infantil**, una iniciativa pensada para que



las nuevas generaciones sigan dando vida, color y futuro a nuestra tradición.

## Jornada festiva, 9 de mayo

La mañana de la jornada del 9 de mayo arrancará con una **gran kilikada** que reunirá a 78 kilikis de com-

partas de toda Navarra, una imagen histórica que convertirá las calles en un auténtico espectáculo de cultura popular, unión y sentimiento festivo.

Por la tarde, el ambiente continuará con chocolatada popular, juegos y sorpresas para disfrutar en familia.

Y para poner el broche final, la emoción volverá a apoderarse del pueblo con los tradicionales **toricos de ruedas** y una **despedida** cargada de simbolismo, recuerdos y agradecimientos.

Treinta años después, los kilikis siguen recorriendo nuestras calles con la misma energía del primer día, manteniendo viva una tradición que es identidad, orgullo y corazón de Villava-Atarrabia.

Os esperamos para celebrar juntos estas tres décadas de historia. Porque ...

**cuando aparecen los kilikis, la fiesta está garantizada!**



# Kultur Etxearen XV. urteurrena

Jarduerak maiazaren 25etik 31ra Actividades del 25 al 31 de mayo

## XV Aniversario de la Casa de Cultura

**Kulturako itsas argia eta mintegia**

**Faro y vivero de cultura**

### 15 URTE JENDEAREN ZERBITZUAN

- ✓ Emozioz beteriko ikuskizun gozagarriak eskainiz;
- ✓ pertsonen sormen-garapena sustatuz;
- ✓ proiektu artistikoak bermatuz
- ✓ kultur arloko tokiko elkarte-mugimendua sendotuz,
- ✓ pentsamendu kritikoa piztuz,
- ✓ emakumezko egile, sortzaile eta artisten ikusgaitasunaren alde eginez,
- ✓ euskarazko kultura bizitzeko/gozatzeko aukera ematen digun eskaintza erakargarria bultzatuz,
- ✓ gizatasunezko balioen ekarpena eginez,
- ✓ eta dibertsitate orokorreko errespetua aldeztuz... Azken buruan, herritartasun kulturala eraikiz.

### 15 AÑOS AL SERVICIO DE LA COMUNIDAD

- ✓ Ofertando espectáculos cargados de emoción y disfrute,
- ✓ promoviendo el desarrollo creativo de las personas,
- ✓ abonando proyectos artísticos,
- ✓ fortaleciendo el asociacionismo cultural local,
- ✓ despertando pensamiento crítico,
- ✓ favoreciendo la visibilidad de autoras, creadoras y artistas,
- ✓ favoreciendo una oferta atractiva que permita vivir/disfrutar de la cultura en euskera,
- ✓ aportando valores de rotunda humanidad,
- ✓ y defendiendo el respeto a todas las diversidades..., en definitiva, construyendo ciudadanía cultural.

### EGITARUA

#### MAIATZAK 25, ASTELEHENA

"40 urte, José Mari Ballestaren argazki-begiradaren bidez" argazki **erakusketaren inaugurazioa**  
Ordua: 19:30 Non: erakusketa gela

#### MAIATZAK 26, ASTEARTEA

**Hitzaldia** "Cuando el territorio no construye identidad sino otredad" Raquel González Eransus, Migranteak Hartzeko eta Laguntzako Karibu zerbitzua, Nafarroako Gobernua  
Ordua: 19:30 Non: Kultur Etxeko 13. gela

#### MAIATZAK 27, ASTEAZKENA

Kultur Etxeko poesia taldearen **errezitaldi poetikoa** Ordua: 19:30 Non: 13. gela

#### MAIATZAK 28, OSTEGUNA

**Antzerkia** "Melocotón en almíbar", El Bardo  
Ordua: 19:30 Non: Antzokia Sarrera: 4 euro

#### MAIATZAK 29, OSTIRALA

"Turandot" **opera** (emankizuna Teatro Realetik) Ordua: 19:30 Non: Antzokia Sarrera: 3 euro

#### MAIATZAK 30, LARUNBATA

**11:30-14:30** Haur jolasak  
Non: Ribed parkea  
**12:00** Areto dantzen erakustaldia eta Adinekoen Elkarteko abesbatzaren emanaldia  
Non: Kultur Etxeko antzokia  
**13:00** Tripotx Zuria dastatzea  
Non: Kultur Etxearen kanpoaldea  
**19:30** Atarrabia, San Andrés eta Paz de Ziganda abesbatzen kontzertua  
Non: Antzokia **Sarrera:** 5 euro  
**21:00** Karrikadantza Erraldoi eta Kilikien konpart sarekin, gaiteroek lagundurik **Ibilbidea:** Kultur Etxetik Udaletxe plazara  
**21:45:** Zenezuzkoak Non: karrika Nagusia  
**22:15** "Ilargipean" kontzertua. Atarrabiako Txistulariak Non: Ribed parkea



#### MAIATZAK 31, IGANDEA

**Kontzertua** KALAKAN Ordua: 20:00 Non: Antzokia **Sarrera:** 6 euro



### PROGRAMACIÓN

#### 25 MAYO, LUNES

**Inauguración de la exposición de fotografía** "40 años a través de la mirada fotográfica de José Mari Ballesta"  
Hora: 19:30 Lugar: Sala de exposiciones

#### 26 MAYO, MARTES

**Conferencia** "Cuando el territorio no construye identidad sino otredad". Raquel González Eransus, Servicio Karibu de Acogida y Acompañamiento a Personas Migrantes del Gobierno de Navarra  
Hora: 19:30 Lugar: Sala 13 (Casa de Cultura)

#### 27 MAYO, MIÉRCOLES

**Recital poético** del grupo de poesía de la Casa de Cultura  
Hora: 19:30 Lugar: Sala 13 (Casa de Cultura)

#### 28 MAYO, JUEVES

**Teatro** "Melocotón en almíbar", El Bardo  
Hora: 19:30 Lugar: Teatro **Entrada:** 4 euros



#### 29 MAYO, VIERNES

**Ópera** "Turandot"  
(retransmisión desde el Teatro Real)  
Hora: 19:30 Lugar: Teatro **Entrada:** 3 euros

#### 30 MAYO, SÁBADO

**11:30-14:30** Juegos Infantiles  
Lugar: parque Ribed  
**12:00** Exhibición bailes de salón y actuación del coro del Centro de Personas Mayores  
Lugar: teatro de la Casa de Cultura  
**13:00** Degustación de relleno  
Lugar: exterior de la Casa de Cultura  
**19:30** Concierto de las corales Atarrabia Abesbatza, San Andrés y Paz de Ziganda  
Lugar: Teatro **Entrada:** 5 euros  
**21:00** Pasacalles con las Comparsas de Gigantes y Kilikis y Gaiteros **Recorrido:** Casa de Cultura-plaza Consistorial  
**21:45:** Toricos de Fuego. Lugar: Calle Mayor  
**22:15** Concierto "Ilargipean". Atarrabiako Txistulariak Lugar: parque Ribed

#### 31 MAYO, DOMINGO

**Concierto** KALAKAN Hora: 20:00 Lugar: Teatro **Entrada:** 6 euros



Udaleko Kultura Zerbitzuak **35.783 €** banatuko ditu herriko **13 erakunde artistiko** egonkorren artean haien lana bultzatzeko, haietako bakoitzarekin hitzarmen bat sinatuz. **Horri esker, 55 emanaldi** lagunduko dira diruz, gehienbat musikalak eta herri kulturakoak, guztiak ere 2026ko kultur eta jai arloko egutegian zehar garatuko direnak. Hitzarmena erakunde artistiko egonkorrei laguntzeko neurria da, gure herriko kulturagintza garatzen laguntzen baitute.

El Servicio de Cultura del Ayuntamiento destinará **35.783 €** a apoyar a las **13 entidades artísticas** estables de la localidad a través de la firma de convenios que permitirán financiar **55 actuaciones**, principalmente musicales y de cultura popular, que se desarrollarán a lo largo del calendario cultural festivo de 2026. Los convenios se configuran como una medida de apoyo a las entidades artísticas estables que contribuyen al desarrollo cultural de nuestra localidad.

## 2026ko hitzarmenak erakunde artistikoekin

## Convenios con entidades artísticas 2026

Erakundea / Entidad	EMANALDIAK / ACTUACIONES	€
Erraldoi Konpartsa Comparsa de Gigantes	Kultur Etxearen XV. urtemuga, Atarrabiako Eguna (5 sep) Festak (urriak 3, 4, 10 eta 11 ) eta San Andres (azaroak 30) / XV Aniversario Casa Cultura (30 mayo), Atarrabiako Eguna (5 sep.), Fiestas (3, 4, 10 y 11 ) y San Andrés (30 noviembre)	4.285
Kiliki Konpartsa Comparsa de Kilikis	Kultur Etxearen XV. urtemuga, Atarrabiako Eguna (irailak 5), Festak (urriak 3, 4, 5, 10 eta 11 ) eta San Andres (azaroak 30) / XV Aniversario Casa Cultura (30 mayo), Atarrabiako Eguna (5 sep.), Fiestas (3, 4, 5, 10 y 11 oct.) y San Andrés (30 de nov.)	3.354
San Andrés Abesbatza Coral San Andrés	Kontzertuak: Udaberria (maiatzak 17), Festak (urriak 4) eta Eguberriak (abenduak 19). Emanaldia: Atarrabiako Eguna (irailak 6) / Conciertos: Primavera (17 mayo), Fiestas (4 oct.) y Navidad (19 dic.). Actuación: Atarrabiako Eguna (6 sept.).	6.742
Jaialdi Akordeoiak Acordeones Jaialdi	Inauteriak (otsailak 14), Atarrabiako Eguna (irailak 5), Festak (urriak 10) eta Olentzero (abenduak 24) / Carnavales (14 febrero), Atarrabiako Eguna (5 sep.), Fiestas (10 oct.) y Olentzero (24 dic.)	2.530
Atarrabiako Gaiteroak Gaiteros de Villava	Errege kabalgata (urtarrilak 5), Kultur Etxearen XV. urtemuga, Atarrabiako Eguna (irailak 5), San Andres (azaroak 30) eta Olentzero (abenduak 24) / Cabalgata Reyes (5 enero), XV Aniversario Casa Cultura (30 mayo), Atarrabiako Eguna (5 sep.), San Andrés (30 nov.) y Olentzero (24 dic.)	1.570
Mikelats Dantza Taldea	Atarrabiako Eguna (irailak 6) eta Festak (urriak 3) / Atarrabiako Eguna (6 sep.) y Fiestas (3 oct.)	1.697
Idoskia Gazte Taldea	Dantzari Eguna (apirilak 25) eta Festak (urriak 10) / Dantzari Eguna (25 abril) y Fiestas (10 oct.)	1.066
Paz de Ziganda Dantza Taldea	Dantzari Eguna (apirilak 25) eta Festak (urriak 10) / Dantzari Eguna (25 abril) y Fiestas (10 oct.)	1.066
Atarrabiako Txistulariak Txistularis de Villava	Inauteriak (otsailak 14), Dantzari Eguna (apirilak 25), Atarrabiako Eguna (irailak 5), San Andres (azaroak 30) eta Olentzero (abenduak 24) / Carnavales (14 febrero), Dantzari Eguna (25 abril), Atarrabiako Eguna (5 sep.), San Andrés (30 nov.) y Olentzero (24 dic.)	2.127
Naspexak Zarpantzar Taldea	Inauteriak (otsailak 14) eta Olentzero (abenduak 24) / Carnavales (14 febrero) y Olentzero (24 dic.)	1.464
Atarrabia Abesbatza	Kontzertuak: Udaberria (maiatzak 9), Txistularien Alardea (urriak 11) eta Kantata (urriak 25) Emanaldia: Atarrabiako Eguna (irailak 6) / Conciertos: Primavera (9 mayo), Alarde de Txistularis (11 oct.) y Kantata (25 octubre) Actuación: Atarrabiako Eguna (6 sep.)	6.742
Gaiteros Aula 17	Tripotx Zuriaren Kofradia (apirilak 12), Atarrabiako Eguna (irailak 5), San Andres (azaroak 30) eta Olentzero (abenduak 24) / Cofradía del Relleno (12 abril), Atarrabiako Eguna (5 sep.), San Andrés (30 nov.) y Olentzero (24 dic.)	1.570
Dulzaineros del Batan de Villava	Inauteriak (otsailak 14), Kultur Etxearen XV. urtemuga, Atarrabiako Eguna (irailak 5) eta San Andres (azaroak 30, dianak eta karrikadantzak) / Carnavales (14 febrero), XV Aniversario Casa Cultura (30 mayo), Atarrabiako Eguna (5 sep.) y San Andrés (30 de noviembre, dianas y pasacalles)	1.570

# Jaiaren ustekabeko bukaera

# Una fiesta con final inesperado

Aurten ere, Maku Gutiérrezen emakume erretiratuen taldea eszenatokira igoko da apirilaren 24an eta 25ean ikuskizun berria emateko.

Un año más, el grupo de mujeres jubiladas de Maku Gutiérrez se sube al escenario de la Casa de Cultura. Presentarán "Cachitos", su nuevo espectáculo, los días 24 y 25 de abril.

Ukaezina da adina buruan dagoela; halaxe da, behintzat, Makuren emakume taldearendako. 65 - 90 urte artekoak dira eta, antzerkiarekin maitemindurik dabiltzan hirugarren urtean, antzezleak direnez, aurrera-pausoa eman eta antzezan sakanagoa eta landuagoa ondu dute. "Izugarri egin dute aurrera. Aurten, antzezlana konplexuagoa da, pertsonaiak zehaztuak daude, nortasunak ezberdinak dira eta halako kutsu zehatzak dituzte. Jauzia oso handia izan da eta, zailtasunak zailtasun, oso ongi erantzun dute", esan digu Makuk.

"Cachitos" familia-endredoa da, misterioz eta umorez ederki bete, protagonista baten erretiro jaiarekin abiatzen dena. "Komedia honen funtsa ez da nola hasten den, nola bukatzen den baizik", aurreratu digu Sagrariok, ederki landua duen erusiar doinu batean. Esther, veteranoena, oso pozik dago egokitu zaion paperarekin. 90 urte dituela, orain aditua da Cadizko doinu hitz egitean.

Batzuentzat erronka izaten ari da testuak ikastea. Aurten, abesbatzako emakumeek protagonismo handiagoa dute, iazko antzezlanean kantuak abestuz bakarrik parte hartu baitzuten. "Lanean hainbat kantu



ematen ditugu eta testuak ere baditugu. Egia esateko, nekoso da testuak buruz ikastea", aitortu digu Marimarrek, Encarnak irri artean katxeta igotzea eskatu dutela dioen bitartean.

## Testu erraza eta dibertigarria

Taldekieen artean Rosa Nagore antzele amateur dago, duela hiru urte ordezkapen bat egitera etorria, azken urtean pertsona batek huts egin zuelako, eta gainontzeko kideak bezala ari da ekimenean. "7 edo

zortzi proiektutan nabil, baina erraztasun handia dut testuak buruz ikasteko, eta oso ongi pasatzen dut taldearekin. Aurtengo testua oso erraza eta dibertigarria da. Jendeak barre egingen du, ziu". Antzezlanean aspian badago aldarrikapen bat, baina ez dute deus agerian jarri nahi. "Gehiago jakin nahi duenak antzokira etorri beharko du".

Asteotan, gogotik ari dira lanean. Izan ere, begirada apirilaren 24an jarria dute, estreinaldiaren egunean, alegia; eta hiru aldiz antzezu gehiago dituzte, asteartero, asteazkenero eta ostegunero ari baitira Kultur Etxean, denak zintzo, irakurketak errepikatzeke, eszenak zuzentzeko eta tarte entretenigarria pasatzeko. Haien arteko harremana eta konfiantza hain baita handia, non bile-

retan ere urtebetetzeak edo albiste onak ospatzen baitituzte.

Orain arte, Atarrabiako jendeak erantzun ezin hobea eman du. Antzezlana eman duten bakoitzean, sarrera guztiak agortu baitira eta, itxura guztien arabera, aurten ere arrakastatsua izanen da. Taldekide batzuk dagoeneko aurreratu egin dira eta senitartekoendako sarrerak erosi dituzte; beraz, jarlekurik gabe gelditu nahi ez baduzu, sartu udal webean ([www.villava.es](http://www.villava.es)) eta erreserbatu zure sarrera.

Que la edad está en la mente es una realidad irrefutable para el grupo de mujeres de Maku. Tienen entre 65 y 90 años y, en su tercer año de idilio con el teatro, han dado un paso adelante como actrices y se han lanzado con una obra teatral más coral y participativa. "Han avanzado muchísimo. Este año la función es más compleja, con personajes definidos, personalidades diferentes y acentos concretos. El salto ha sido muy grande y, a pesar de la dificultad, han respondido muy bien", comenta Maku.

"Cachitos" es un enredo familiar lleno de misterio y mucho humor que arranca con la fiesta de jubilación de uno de los protagonistas. "Esta comedia no es como empieza, sino como acaba", nos adelanta Sagrario con un logro acento ruso. Esther, la más veterana, está encantada con el papel que le ha tocado. A sus 90 años, se está volviendo experta en hablar con acento gaditano. Para algunas está siendo un reto aprenderse los textos. Este año las mujeres del coro, que el año pasado solo participaban en la función cantando, tienen más protagonismo. "En esta obra interpretamos varias can-



ciones y también tenemos textos. La verdad es que cuesta memorizarlos", admite Marimar, mientras Encarna añade entre risas que han pedido subir el caché.

## Texto fácil y divertido

Entre las componentes del grupo está la actriz amateur Rosa Nagore, que vino hace tres años a hacer una sustitución porque falló una persona en el último momento y se ha sumado al proyecto como una más. "Estoy en 7 u 8 proyectos diferentes, pero tengo

mucha facilidad para memorizar los textos y me lo paso muy bien con el grupo. El texto de este año es muy fácil y divertido. Las risas están aseguradas".

La obra también esconde un mensaje reivindicativo que prefieren no desvelar. "El que quiera saber más, tendrá que acercarse al teatro".

Estas semanas están siendo muy intensas. Con la vista puesta en el próximo 24 de abril, fecha del estreno, se han triplicado los ensayos y todos los martes, miércoles y jueves acuden puntuales a la Casa de Cultura para repetir lecturas, corregir escenas y pasar un rato entretenido. Porque su complicidad es tan grande que sus reuniones también sirven para celebrar cumpleaños o buenas noticias.

Hasta ahora, la respuesta del público ha sido inmejorable. Siempre que actúan cuelgan el cartel de *completo* y todo parece indicar que este año repetirán éxito. Algunas de las componentes del grupo ya se han adelantado y han comprado la entrada a sus familiares, así que, si no queréis quedaros sin butaca, entrad en la web municipal ([www.villava.es](http://www.villava.es)) y reservad vuestra entrada.

# KULTURA | CULTURA

## El Bardok “Melocotón en almíbar” estreinatuko du

### El Bardo estrena “Melocotón en almíbar”

**MAIATZAK 2, LARUNBATA, 20:00, ANTZOKIA (6 €).** Atarrabiako El Bardo taldeak lehendabizikoz emanen du maiatzean bere lan berria, “Melocotón en almíbar”, Miguel Mihurak idatzia. Komediak ekarriko digun parodian elkarrizketa arinak eta egoera komikoak garatuko dira, intrigaz eta suspensez beteriko trama batean barneratzeko; hitz batez, airean edukiko gaitu amaiera iritsi arte. Karitateko moja batek, itxuraz erne-ernea denak, atrakatzailer banda bateko kideak erotuko ditu. Izan ere, lapurreta egin ondoren, etxebizitza bat alokatu dute bertan ezkutatzeko, baina erizain batengana jo beharko dute “el Nene” gaixotu delako.



Antzezle multzo askotariko duela, lanak lanaren ikuspegi berria ekarriko digu, “Melocotón en almíbar” ahogozagarría eskaintzeko. Gozatu!

**2 MAYO, SÁBADO, 20:00, ANTZOKIA (6 €).** La compañía teatral de Villava El Bardo, estrena en mayo su nuevo montaje, su adaptación de “Melocotón en almíbar”, de Miguel Mihura. Esta comedia nos introduce en una parodia en la que los diálogos ágiles y situaciones cómicas, desembocan en una trama llena de intriga y suspense, que nos mantiene en vilo hasta el final.

Una monja de la Caridad, aparentemente muy avisada, es capaz de volver locos a los miembros de una banda de atracadores que, después de perpetrar un atraco, han alquilado un piso para esconderse, pero tienen que recurrir a una enfermera porque se les ha puesto malo “el Nene”. Con un reparto variado y una nueva visión de la obra, El Bardo nos ofrece un apetitoso “Melocotón en almíbar”. ¡Que la disfruten!

# BERDINTASUNA | IGUALDAD

## Jarduera artistikoak, adinekoendako ongizate iturri

## Actividades artísticas, fuente de bienestar para las personas mayores

Artea bide guztiz egokia da emozioak, oroitzenak eta bizipenak adierazteko, baita adinekoen kasuan ere. Sormena zahartzaroen akuilatzen bada, egunerokoan txertatzen bada, nabarmen hobetuko du adinekoen osasun emozionala, kognitiboa eta soziala. Hori dela eta, Berdintasun arloak hiru tailer antolatatu ditu jubilotekara joaten diren gizon-emakumeentzat.

**Otsailaren 16an**, San Balentin egunaren baitan, “Nire islada: maitasunak forma asko ditu” eskulan tailerra egin zen nork bere burua maitatzeak duen garrantzia lantzeko. Gero, **martxoaren 9an**, “Nire bizitzako emakumeak” izenburuko landare tailer batetik abiatuta, parte-hartzaileek beren bizitzako emakume garrantzitsuenei buruz egin zuten gogoeta. Azkenik, **apirilaren 30ean**, “Enbor beretik” izenburuko artisautza tailerrean eskultura bat eginen dute, denok, gazteok eta adinekook, enbor beretik gatzela sinbolizatzen: adinekook gazte izan baitziren, eta gazte jendea zaharra izanen da egunen batean.



El arte es un canal poderoso para expresar emociones, recuerdos y vivencias, también en el caso de las personas mayores. Estimular la creatividad en la vejez, incorporarla a su rutina diaria, mejora notablemente su salud emocional, cognitiva y social. Por ello, el área de igualdad ha organizado tres talleres para las mujeres y los hombres que acuden a la Jubiloteca.

El **16 febrero**, en el contexto de San Valentín, se trabajó en el taller de manualidades “Nire islada: maitasunak forma asko ditu / Mi reflejo: el amor tiene muchas formas”, la importancia de quererse a uno mismo. El **9 de marzo**, partiendo de un taller con plantas titulado “Nire bizitzako emakumeak / Las mujeres de mi vida”, las personas participantes reflexionaron sobre las mujeres más importantes en su vida.

Finalmente, el **30 de abril**, en un taller de artesanía titulado “Enbor beretik / Del mismo árbol”, realizarán una escultura que simbolice que jóvenes y mayores, todos venimos del mismo tronco: la gente mayor fue joven y la gente joven será vieja algún día.

**FRENAUTO**  
FRENOS DEL AUTOMOVIL

Ricardo Bel, s/n  
Tel. 948 33 24 33

31610 VILLAVA

**IMPRESIÓN 3D**  
**IMPRESORAS 3D**

**3D** INPRIMAGAILUAK  
INPRESIOAK

**CARTUCHOS DE TINTA**  
**PARA IMPRESORAS**

**INPRIMAGILUETARAKO**  
**TINTAZKO KARTUTXOAK**

**Calle Mayor 27 / Kale Nagusia 27**



## Hilerrri arteko zelaia lorategi bihurtu eta argiteria paratu dute

## Ajardinamiento e iluminación en la campa entre cementerios

Udaleko obra zerbitzua eta prestakuntza eta enplegu tailerreko langileak elkarrekin aritu dira lanean hilerrri arteko zelaia moldatzeko. Batetik, zelaiaren malda goxatu, ureztapen sistema paratu, eta goialdea erein eta zuhaitzak ere landatu dira, lekua toki atsegina izateko. Era berean, errepidera doan ezpanda huntzarekin tapizatu da. Martxoaren 20n, ostirala, 45 ikasle eta irakasle 13 zuhaitz landatu zituzten (basaka, haritza, astigarra eta ezkia). Bestetik, argiteria paratu da hilerrien arteko zelaietan gauzatu hobeki ikusteko. Zehazki, zelaietan bertan LED argiak jartzeaz gain, Arga kalean farolak paratu dira, karrika hori hilerrian sartzeko bidea izaten baita, hilerrri arteko zelaira joateko errepidea urpean gelditzen denean. Era berean, aipatutako lanekin batera, ezabatu da Arga kalea hartua zuen landare-hesiaren zati bat, oinezkoen pasajerara egokitzeko.

El servicio municipal de obras y el personal del taller de formación y empleo han trabajado conjuntamente para acondicionar la campa entre cementerios. Por un lado, se ha perfilado el terreno para darle una forma más suave a la pendiente, se ha instalado un sistema de riego y se ha sembrado la zona situada en la meseta superior, donde también se ha plantado arbolado para convertir el área en un lugar agradable. Asimismo, se ha tapizado con hiedra el talud que da a la carretera. El viernes 20 de marzo, 45 alumnos y profesorado plantaron 13 árboles (almez, roble, arce y tilo) en la nueva zona.

Por otro lado, se ha colocado iluminación en la campa entre cementerios para mejorar la visibilidad nocturna. Se han instalado unos focos LED en la propia campa y se han instalado también unas farolas en la calle Arga, que suele utilizarse como entrada alternativa a la campa cuando se inunda la carretera del camino entre cementerios. También se ha aprovechado la actuación para eliminar parte del seto que ocupaba la calle Arga y para adecuar su paso a los y las peatones.

## Usoak kontrolatzeko lanak

Aspalditik hona, Udalak usoak kontrolatzen ditu uso gehiegi dagoela ikusten duen tokietan, uso kopuru jasangarria lortu eta mantentzeko, eta usoek osasunerako eragiten dituzten arriskuak saihesteko. 2025ean, adibidez, 1.856 ale harrapatu ziren, 2024an baino bi aldiz baino gehiago (812 uso). Igoera nabarmena izan da, uda ondotik usoak erruz ugaldu zirelako. Izan ere, ugari izan zuten elikagaia, eguraldi baldintza ezin hobeen ondorioz. Horregatik, udaldira arte, bana beste, 125 uso harrapatu ziren hilean; uda ondoren, berriz, 225. Oroitarazi behar da uso kopurua neurrigabe handitzeak ondorio kaltegarriak eragiten dituela jendearentzat, hala nola gaixotasunak, zikinkeria, higienetik gabeko inguruneak, etab.

## Control de palomas

Desde hace años, el Ayuntamiento realiza un control integral de palomas en aquellos lugares en los que se detecta un número excesivo de ejemplares con el objetivo de alcanzar y mantener un número sostenible de palomas y evitar los riesgos de salud que entrañan. En 2025 se capturaron 1.856 ejemplares, más del doble que en 2024 (812 ejemplares). Este notable incremento se debe a la elevada reproducción de palomas registrada tras el verano. El principal motivo ha sido la presencia de abundante alimento al darse unas condiciones meteorológicas inmejorables. Así, de las 125 capturas al mes contabilizadas hasta la época estival, se pasó a las 225 capturas al mes después del verano. Hay que recordar que la proliferación de palomas conlleva efectos no deseados para la población, como enfermedades, suciedad y entornos poco higiénicos, etc.

## Hasi dira Nafarroako Gorteak plazako atsedean gunea egiteko lanak

Martxoaren 5az geroztik, Nafarroako Gorteak plazako atsedean gunea egiten ari dira. Gune berriak, izan ere, bi eremu izanen ditu: batetik, berdegune bat, zuhaitzez, bidexkaz, zuhaixkaz eta landare bizikorrez osatua, egun beroetan freskura eragiteko. Era berean, ibilbide sentsorial bat moldatuko da inguru horretan, hainbat material ez egina, oin nekatuak erlaxatzeko eta bizkortzeko. Bestetik, 500 m<sup>2</sup>-ko eremu bat, egungo hormigoia ordez euri-lorategi bat paratzeko, ezin hobea euria xurgatzeko; bertan, zuhaitzak eta zuhaixkak landatuko dira, gune hori guztia klima-aterpea izan dadin. Aurreikuspenen arabera, lanak maiatz bukaeran amaituko dira. Kostuaren % 90 (99.852,33 euro) Nafarroako Gobernuak lagundu du diruz, Donejakue bideko toki-erakundeei dirulaguntzak emateko deialdiaren barnean, mugikortasun jasangarriko, atsedeenlekuetarako eta paisaiaren kontserbaziorako eta ostatu zirkularretarako. Deialdia Next Generation EU Europar Batasunak finantzatutako "Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren" baitan dago sartua.

El 5 de marzo comenzaron las obras del área de reposo de la plaza Cortes de Navarra. El nuevo espacio dispondrá de dos zonas: una verde con masas de arbolado, senderos y masas de arbustos y vivaces que aportarán frescura en los días más calurosos y en la que también se incluirá un recorrido sensorial con diferentes materiales, pensado para relajar y tonificar los pies cansados. Y una zona de 500 m<sup>2</sup> que sustituirá el hormigón actual por un jardín de lluvia, ideal para absorber las precipitaciones, en el que se plantarán árboles y arbustos que convertirán el espacio en un refugio climático.

Está previsto que las obras concluyan a finales de mayo. El 90% de su coste (99.852,33 euros) está subvencionado por el Gobierno de Navarra, dentro de la convocatoria de ayudas a entes locales de las rutas del Camino de Santiago para movilidad sostenible, áreas de reposo y conservación paisajística y alojamientos circulares, en el marco del "Plan de recuperación, transformación y resiliencia-financiado por la Unión Europea-Next generationeu".

## Har ezazu parte HAZlerra programaren laugarren edizioan!

**IZEN-EMATEA:**  
**APIRILAREN 20tik 30era**  
**juventud@villava.es** helbidean

Ekainean, enpleguan hasteko HAZlerra ekimenaren aurten-go edizioa abiatuko da, Udalak 12-23 urte arteko neska-mutilentzat bultzatua. Ekimenak helburu du lan mundua gazteengana hurbiltzea eta gazteria prestatzea enplegua era aktiboan bilatzeari lotutako hainbat arlotan (nominak ulertzea, segurtasunari, higienerari eta tresnak erabiltzeari buruzko araudia jakitea edota Nafar-Lansare, Nafarroako Enplegu Zerbitzura bisita egitea).

Ekimenean parte hartzeko, mezu bat bidali behar da **juventud@villava.es** helbidera eta aurkezpen txiki bat idatzi, hau da, izen-abizenak, jaioteguna, non erroldatua, NANA, posta-helbidea eta mugikorra.

Maiatzaren 11tik 15era, hautagaiak aukeratzeko elkarrizketak egingen dira. Aurten, lehen aldiz, bilera bat egingen da aukeratzaren diren 20 lagunendako eta itxaroen zerrendan gelditzen diren beste 5endako, maiatzaren 20an. Bileran, proiektua eta haren funtzionamendua azalduko dira, bai eta gazteek sinatuko duten kontratu mota ere.

En junio arrancará una nueva edición del proyecto de iniciación al empleo HAZlerra, un programa impulsado por el Ayuntamiento para chicas y chicos de 16 a 23 años cuyo objetivo es acercar el mundo laboral a la juventud con formación sobre distintos aspectos relacionados con la búsqueda activa de empleo (entender una nómina, conocer la normativa sobre seguridad, higiene y manejo de herramientas o una visita al Servicio Navarro de Empleo). Para tomar parte, hay que enviar un correo a **juventud@villava.es** e incluir una pequeña presentación, nombre, apellido, fecha de nacimiento, empadro-



## ¡Participa en la cuarta edición del programa HAZlerra!

**INSCRIPCIONES:**  
**20 -30 DE ABRIL**  
**en juventud@villava.es**

### 40 orduko lan ordaindua

10na postuko bi txanda antolatuko dira. Lehena ekainaren 18tik uztailaren 3ra (ekainaren 18a eta 19an prestakuntza emanen da, eta lanegunak, berriz, ekainaren 22tik uztailaren 3ra bitarte izanen dira). Bigarren txanda uztailaren 16tik 31ra izanen da (uztailaren 16a eta 17a prestakuntzarako, eta hilaren 20tik 31ra bitarte, lanerako). Parte-hartzaile bakoitzak, guztira, 40 orduko lan ordaindua egiteko kontratua sinatu eta prestakuntza jasoko du gaitasun pertsonaletan eta profesionaletan.

Postua lortzen dutenek hiri espazioak eta bestelakoak lehengoratzeko lanak egingen dituzte. Adibidez, horma-irudi bat egingen dute karrika Nagusiko pasabide berrian eta, era berean, mantentze eta kontserbazio lanak Bakearen parkean, Plaza Gorrietan, Ekogunean eta Ezkaba mendian.

namiento, DNI, dirección postal y teléfono móvil. Del 11 al 15 de mayo se realizarán las entrevistas para elegir las candidaturas. Este año, y como novedad, se convocará una reunión el 20 de mayo para las 20 personas seleccionadas y para 5 personas que hayan quedado en lista de espera. En esa reunión se presentará el proyecto y su funcionamiento, así como el tipo de contrato que firmarán.

### 40 horas de trabajo remunerado

Se programarán dos tandas de 10 plazas cada una. La primera será del 18 de junio al 3 de julio (el 18 y el 19 de julio

se dedicarán a la formación y las jornadas laborales serán del 22 de junio al 3 de julio). La segunda tanda será del 16 al 31 de julio (16 y 17 de julio para formación y del 20 al 31, trabajo). En total, cada participante firmará un contrato de 40 horas remuneradas y recibirá formación en competencias personales y profesionales.

Quienes logren su plaza realizarán tareas de recuperación de espacios urbanos y no urbanos. Por ejemplo, elaborarán un mural en el nuevo pasadizo de la calle Mayor y realizarán labores de mantenimiento y conservación en el parque de la Paz, las Plazas Rojas, el Ekogune y el monte Ezkaba.

## Sex Buzoia Berritasunak eta guzti! ¡Novedades!



Helburua da sexualitateari buruzko informazioa eta baliabideak zehaztasunez eta hurbiltasunez ematea 12-17 urte arteko gazteei. Aurten, lehen aldiz, Gaztelexun, ikastetxeetan, Martiket kiroldegian eta eskaera egin duten etxabeetan jarrita dauden buzoi edo postontzietan gain, **zerbitzu digital** bat jarri da kontsultak QR bidez bidaltzeko. QR hori Kultur Etxean, Martiket igerilekuetan, udaletxean, Atarrabia pilotalekuan, etxabeetan eta herriko hainbat tabernatan paratuta dauden karteletan ageri da eta, hartan sartuz, online formulario batera eramanen gaitu. Era berean, badira gauza berriak galderei erantzuteko moduan. Hainbat bide erabiliko baitira: Instagram eta Tik Tok astero, eta hilean behin ikastetxeetara eta Gaztelexura igorriko den agiri bat, Sex Buzoiaren informazio-taulan jar dezaten. Halaber, buletin bat argitaratuko da urtaro bakoitzean, biltzen diren galde-erantzunen berri emateko. Buletina Sex Buzoiak dituen txokoetan egonen da irakurgai, bai eta Udalaren webgunean ere.



UDABERRIA



UDA

Su objetivo es facilitar a la juventud de 12 a 17 años información y recursos sobre sexualidad de forma rigurosa y cercana. La novedad es que a los buzones físicos colocados en el Gaztelexu, centros educativos, polideportivo Martiket y las bajeras que los solicitan, se ha incorporado un **servicio digital** al que enviar consultas. Se accede desde un QR presente en carteles colocados en la Casa de Cultura, piscinas Martiket, Ayuntamiento, Frontón Atarrabia, bajeras y diferentes bares del pueblo. Este QR enlaza con un formulario on line. También hay novedades en la forma de responder a las consultas. Se hará por distintos canales: Instagram y Tik Tok semanalmente y en un documento que se enviará mensualmente a los centros educativos y Gaztelexu para que lo coloquen en el panel informativo de Sex Buzoia. Asimismo, se publicará un boletín por cada estación del año con las preguntas y respuestas recogidas. Se podrá leer físicamente en los txokos de Sex Buzoia y en la página web del Ayuntamiento.

## Hiru Herri

ATARRABIA, UHARTE  
ETA BURLATA

### TXANGOIA: URDAIBAI

Biosferaren Erreserba  
**Noiz:** maiatzak 9  
**Nor:** 1996 - 2013  
artean jaiotakoak  
**Jarduerak:**  
itsasadarra kanoan  
jaitea eta Laga  
hondartza bisitatzea  
**Prezioa:** 30 euro  
**Izen-ematea:**  
apirilak 20-27, 948 012 012n edo  
www.villava.es



### EXCURSIÓN RÍA DE URDAIBAI

Reserva de la Biosfera  
**Cuándo:** 9 de mayo  
**Quién:** nacidos/as entre  
1996 y 2013  
**Actividades:** descenso en  
canoa por la ría y visita a la  
playa de Laga  
**Precio:** 30 euros  
**Inscripción:** del 20 al 27 de  
abril en el 948 012 012 o en  
www.villava.es

### CONQUIS HIRU HERRI Leku libreak

Bizi ezazu esperientzia zoragarria: kanpa-  
tzea, primeran pasatzea eta talde lanak  
**Argibideak:** 948 35 59 70 edo zatoz  
Gaztelekura  
**Kanpaldi egunak:**  
ekainak 24 - 26  
**Jarduerak:** kanoa, hondartza eta Bird  
Centre bisitatzea  
**Nor:** 2009 - 2011 artean jaiotakoak  
**Prezioa:** 85 euro

### CONQUIS HIRU HERRI Plazas libres

Vive la experiencia de acampar, diver-  
tirse y resolver pruebas en equipo.  
**Información:** 948 35 59 70 o  
acércate al Gazteleku  
**Fechas del campamento:**  
24 al 26 de junio  
**Actividades:** canoa, playa y visita  
al Bird Centre  
**Quién:** nacidos/as entre  
2009 y 2011  
**Precio:** 85 euros

## Gazte Bizi eta Gazte Bizi plus Udaberria



Bada tokirik  
Gazte Bizi eta  
Gazte Bizi plus  
Udaberria  
aisia  
hezigarriko  
programetan.  
El programa  
**Gazte Bizi**  
programa  
**2012an eta**  
**2013an**  
jaiotakoei

dago zuzendua eta **ostiraletan** egiten da,  
**18:00etatik 20:00etara** eta,  
**larunbatetan, 18:30etik 20:30era.**  
**Gazte Bizi plus** programa **ostiraletan**  
egiten da, **19:00etatik 21:00etara** eta  
**2008tik 2011ra** bitarte jaiotako neska-  
mutilei dago zuzendua.  
Interesdunek aukeran dute telefonoz  
deitzea (**948 35 59 70 / 662031673**),  
mezu bat bidaltzea  
(**juventud@villava.es**) edo **Gaztelekura**  
etortzea.

## Gazte Bizi y Gazte Bizi plus Udaberria



Quedan  
plazas  
libres en los  
programas  
de ocio  
educativo  
Gazte Bizi y  
Gazte Bizi  
plus  
Udaberria.  
El  
programa  
**Gazte Bizi**

está dirigido a jóvenes nacidos en **2012 y 2013** y se desarrolla los **viernes de 18:00 a 20:00** y los **sábados, de 18:30 a 20:30.**  
El programa **Gazte Bizi plus** tiene lugar los **viernes de 19:00 a 21:00** y está dirigido a chicas y chicos y chicos nacidos **entre 2008 y 2011.**  
Actividades del viernes 17 de abril al sábado 13 de junio.  
Las personas interesadas pueden llamar (**948 35 59 70 / 662031673**), mandar un correo (**juventud@villava.es**) o acercarse al **Gazteleku.**

## Sasoitu zaitez mutilkirol eskaintzarekin!

## ¡Actívate con la oferta multideporte!

IZEN EMATEA /  
INSCRIPCIONES  
Kirol Zerbitzua /  
Servicio de Deportes  
(948 12 49 99)  
Gazteria Arloa /  
Área de Juventud  
juventud@villava.es

Ikastetxeetako ikasleei zer kirol  
dituzten gustuko galdetu eta gero,  
Udaleko Gazteria eta Kirol arloek  
jarduera programa bat diseinatu dute  
12-16 urtekoentzat, apirilaren 13tik  
uztailaren 10era egiteko.

